

GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

Taldea: 3. Taldea

Izen-abizenak: Irene García, Gotzon Gandarias, Alex Ormaetxea eta Naroa Heredia.

Izenburua: Alaska.

EKOSISTEMAK gaia adierazteko egingo dugun irudiaren ikusizko baliabideak txosten honetan azalduko ditugu. Azalpen honen bitartez irudi proiektuaren planifikazioa egingo dugu. Showbieren bitartez bidaliko dugun txosten hau proiektuaren ebaluaziorako errubrikaren bigarren atalean baloratuko da.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitartez? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

Nola naturan harrapakariek harrapakinak jan behar dituzten bizirik irauteko. Alaskako klima dela eta efektuen artean **hotza** adieraziko dugu. Honez gain, **mugimendua, ezkerretik eskumarako norabidea eta armonia.**

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro kurbatuak egingo ditugu errekan zehar ur-jauziaren **mugimendua** adierazteko, baita ere atzekaldean jarriko ditugun zuhaitzen enborrak lerro kurbatuekin egingo ditugu. Errekaren olatuak kurbatuak egingo ditugu lehen esan dugun bezala, bertan bizi diren arrainak **ezkerretik eskumarako norabidean** mugitzen direla adierazteko. Lerroetan zabalera desberdinak margotuko ditugu **mugimendua** jarraia goa eginez.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Kolore hotzak ipiniko ditugu errekan Alaskako klima hotza adierazteko. Tono urdinekin margotuko dugu ur-jauzia, eta hartzak, bertakoak bezala, tonu marroiekin margotuko ditugu. Modu honetan **armonia** polita sortuko da.

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):

Lau orriak bertikalean jarriko ditugu bat bestearen alboan. Modu honetan orrien behealdean erreka egongo da eta goikaldean hartzak eta zuhaitzak. Lehenengo orrian ur-jauzia egin dugu eta lehenengo orritik erreka ura beste orrietatik zabaltzen da, **ezkerretik eskumarako norabidea** adierazteko.